

Marmotaren Eguna

Jende askok pentsatzen du Marmotaren Eguna, Halloween eguna bezala, Ameriketako kontua dela.

Baina hemen eskaintzen dizuegun artikuluak jasotzen duen bezala, hori ez da guztiz egia. Badauka zerikusia gure kulturarekin ere.



1- Marmotaren eguna

Gaur, otsailak 2, Marmotaren Eguna da. Zinetik ezagutzen dugu askok ohitura hau, eta askok amerikar moderno bat dela pentsatuko duzue askok. Baina, adi, Halloween jaiaren kasuan bezala, Euskal Herrian ere baditu aurrekari edo paraleloak kontu honek. Bai, Halloween jatorriz euskal festa bat da. Euskalduna bakarrik? Ez, noski, ia Europa osoarena, baina baita Euskal Herrikoa ere. Europako etorkinek eraman zuten Ameriketara, eta hemen galtzen joan zen neurrian joan zen han sendotzen. Kandelaria eguneko kontuak...

Zer da Marmotaren Eguna? Punxsutawney herrian egiten dute. Phil izeneko marmota bat daukate enbor batean sartuta, eta otsailaren 2an, urtero, eguna argitzearekin marmota ateratzen dute zuloatik, zerura begira jartzen dute, eta segun marmotak keinuren bat egiten duen edo ez, egun hotzak amaitu direla, edo neguak oraindik iraun behar duela pronostikatzen du Phil marmotak. Gutxi gorabehera Andoni Aizpuruk eta Pello Zabalak egiten dutena tenporekin, baina estilo amerikarrean.

Horrez gain, film zoragarri baten harian ere agertzen da Marmotaren Eguna. Bill Murray eguraldi-gizona da eta kateatuta dago behin eta berriro egun berbera bizitzera, Marmotaren Eguna, hain zuzen.

Baina kontu honek badu paralelorik Euskal Herrian. Animalia esnatu, zerura begiratu, eta horren arabera neguaren amaiera pronostikatu... Europako toki batean baino gehiagotan badira halako ipuinak.

Pirinio inguruetan, eta Euskal Herrian, hartza da, hain zuzen, otsailaren 2an, Kandelaria egunez, esnatzen dena. Gaur irtengo da hartza lozorrotik, bere leizetik, eta izarrei eta ilargiari begiratuko die. Eta orduan erabakiko du hartzak zenbat falta zaion neguari...

Kandelaria eguneko hartzarenak zerikusia du, halaber, inauteriekin.

- Hainbat herri-inauteritako protagonista da hartza.
- Inauteriak, berez, neguaren amaieraren ospakizuntzat ere har daitezke.
- Inauteri egun aldakorrak noiz tokatzen diren jakiteko, ilargi-faseak ere tartean daude kalkuluan, eta hortaz, logika bihurri samar batekin zentzua du zeruan aztarnak ikusteak, negua noiz amaitzen den, inauteriak noiz diren igartzeko.

EGIA ALA GEZURRA

Testua irakurri, eta ondoren esan honako esaldi hauek bat datozen ala ez testuarekin.

- Marmotaren eta Halloween jaiak Amerikan asmatutako jaiak dira.

Egia Gezurra

- Zinemari esker ezagutzen dugu hemen Marmotaren jaiak

Egia Gezurra

- Otsailaren 2an marmota ateratzen dute enbor barrutik, eta horrek adierazten du negua bukatu dela.

Egia Gezurra

- Eguraldia iragartzeko, Hemengo tenporek badute nolabaiteko lotura marmotaren sistema horrekin.

Egia Gezurra

- Marmotaren eguna filmean marmota kateatuta ageri da.

Egia Gezurra

- Eguraldiaren eta animalien esnatzearen arteko lotura erakusten duten ipuinak badira Europako zenbait herrialdetan.

Egia Gezurra

- Euskal Herrian egunotan esnatzen den animalia hartza da.

Egia Gezurra

- Neguaren amaiera noiz den jakiteko, zerikusi gutxi dauka ilargiak.

Egia Gezurra

2- Marmotaren edo hartzaren eguna?



Komunikabideen eraginez, otsailaren 2a, Kandelario edo Kandelaria eguna, Marmota Egunarekin lotzen dugu, Ameriketako Estatu Batuetako ohitura horrekin. Baina euskaldunok badugu beste animalia bat negua bukatu den ala ez jakiteko. Audio honetan duzu horren berri. Entzundakoan, hautatu erantzun zuzena.

***AUDIOA: Marmotaren edota Hartzaren eguna**

1- Pensilvaniatik iritsi zaigu marmotaren istorioa, baina...

- a) Euskal Herrian, Europan ez bezala, hartza da neguaren bukaera iragartzen duena.
- b) Europa osoan ere bada neguaren amaiera iragartzen duen animalia, hartza.
- c) Euskal Herrian, betidanik, hartza izan da Kandelaria egunez lo zorroan sartzen dena.

2- Hartzak protagonismo berezia dauka Euskal Herriko inauteri askotan...

- a) Hartzak lotan ematen duelako negua, eta Kandelaria inguruan esnatzen denean, negua amaitu eta inauteria datorrela iragartzen duelako.
- b) Euskal Herrian, Pirinioan eta Europa osoan bezala, hartza desagertu egin delako.
- c) XXI. Mendearen hasieran ahaztuta zeukan protagonismoa eman nahi zaiolako.

3- Zein da marmotak erabiltzen duen iragartzeko teknika?

- a) Kandelaria egunean lo zorrotik atera eta inauteria datorrela iragartzen du.
- b) Marmotaren egunean zuloatik atera eta Kandelaria eguna datorrela iragartzen du.
- c) Kandelaria egunean zuloatik atera, zeruari begiratu, eta hurrengo aste eta hilabeteetako eguraldiaren iragarpena egiten du.

3- Usadioa kontatu

Ezagutzen al duzu egutegiari edota urtaroei lotutako herri usadioren bat? (Agate deuna, Olentzero, San Juan suak, Errepuiere, Joaldunak, Momotxorroak...)

Ezagutzen al duzu atzerriko kulturetatik jasotako usadioren bat? (Halloween, San Patrics day...)

Kontatu ikaskideei usadio horietako bat zertan den, ospakizun horrekin duzun eskarmentua, edota gertatutako pasadizo bat.



ERANTZUNAK

1- Marmotaren eguna

EGIA ALA GEZURRA

Marmotaren eta Halloween jaiak Amerikan asmatutako jaiak dira. **Gezurra**

Zinemari esker ezagutzen dugu hemen Marmotaren jaia. **Egia**

Otsailaren 2an marmota ateratzen dute enbor barrutik, eta horrek adierazten du negua bukatu dela. **Gezurra**

Eguraldia iragartzeko, Hemengo tenporek badute nolabaiteko lotura marmotaren sistema horrekin. **Egia**

Marmotaren eguna filmean marmota kateatuta ageri da. **Gezurra**

Eguraldiaren eta animalien esnatzearen arteko lotura erakusten duten ipuinak badira Europako zenbait herrialdetan. **Egia**

Euskal Herrian egunotan esnatzen den animalia hartza da. **Egia**

Neguaren amaiera noiz den jakiteko, zerikusi gutxi dauka ilargiak. **Gezurra**

2- Marmotaren edo hartzaren eguna?

1- Pensilvaniatik iritsi zaigu markotaren istorioa, baina...

b) Europa osoan ere bada neguaren amaiera iragartzen duen animalia, hartza.

2- Hartzak protagonismo berezia dauka Euskal Herriko inauteri askotan...

a) Hartzak lotan ematen duelako negua, eta Kandelaria inguruan esnatzen denean, negua amaitu eta inauteria datorrela iragartzen duelako.

3- Zein da marmotak erabiltzen duen iragartzeko teknika?

c) Kaldelaria egunean zulotik atera, zeruari begiratu, eta hurrengo aste eta hilabeteetako eguraldiaren iragarpena egiten du.